



Arratia

"Bidean Gagoz"

4Zb.

2006

martxo

Hiruhilabeteroko informazio aldizkaria

Arratia



Eskolako agenda 21 Ingurumena eta eskola, eskutik

Igorre, Dima eta Zeanuriko eskoletako eta Zulaibarko lanbide ikastetxeko ikasleek iraunkortasuna izango dute hizpide aurtengo ikasturtean, eta zehazki, uraren gaia aztertuko dute

Arratiko zenbait eskolatan bideratuko den proiektu barri honek, Tokiko Agenda 21en garapenarekin zerikusi handia du.

Egungo gizartea ingurumenean ondorio kezagarriak sortzen ari da: ozono geruzaren galera, negutegi efektua handitzea, kutsadura, baliabideen erabilera desegokia, hondakinen gehikuntza, gizarte mailako gero eta desberdintasun handiagoak. Gizarte-mailan

arazo hauen konponketa bideratzeko proposamenak ikus daitezke.

Arratiako ia udalerriz gutxiak bere konpromisua hartu dute eta Tokiko Agenda 21a burutzen ari dira.

Eskolak gizartearen eta ingurumenaren premiei erantzun nahi badie, inguruarekiko irekiagoa izan behar du, ingurunea ulertu eta bertan esku hartzeko ezagutzak eta gaitasunak ezarri behar ditu eta bere

inguruko ingurumenaren hobekuntzarako konpromisozko jarrerak eta baloreak sustatu behar ditu.

Ikastetxeek honetan zereginik badute eta horregatik Eskolako Agenda 21a sortu da. Aurtengo kurtsoan, Igorre, Dima eta Zeanuriko eskolek eta Zulaibar Lanbide Ikastetxeak parte hartuko dute eta datorren ikasturtean gainontzeko beste zentruak gehituko direla espero da.

Aurtengo ikasturterako, ikastetxeek jasagarritasuna izango dute oinarri, bertan aukeratutako gaia URA delarik. Diagnostiko bat egingo da, helburuak eta adierazleak finkatuko dira, eta azkenik, Ekintza Plana osatuko da.

Proiektuak hiru adar izango ditu:

- Eskolako ingurumenaren kudeaketa jasagarria.
- Curriculum berrikuntza.
- Komunitatearen parte-hartzea.

Proiektuak gorputza hartzeko ezinbestekoa da Ikas-komunitate osoaren partaidetza; hori dela eta, Eskolako Ingurumen Batzordeak sortu dira, bertan gurasoak, ikasleak, irakasleak, ez-irakasleak eta Udaletxeek parte hartzen dutelarik.

Proiektu hau bideratzeko, bai zentroek, bai Udaletxeek, Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntzak jaso dituzte.

- URA AURREZTEA HIRITAR GUZTION ZEREGINA DA. ATERA KONTUAK.
- BAINU BAKOITZEAN 300 LITRO UR KONTSUMITZEN DIRA.
- KOMUNEKO TANGA HUSTUTZEN DUGUN BAKOITZEAN 10-15 LITRO INGURU GASTATZEN DIRA.
- GARBIGAILUAK 90 LITRO UR ERABILTZEN DITU. ETA HORRI GEHITU BEHAR ZAIO ONTZI-GARBIGAILUAREN KONTSUMOA, NORBERAREN ETA ETXEAREN GARBIKETA...

Arratia



IHOBE
Ingurumen Inkestatzeko Sektoreko Funtzioak
Sociedad Pública de Gestión Ambiental



Areatzako mugikortasun iraunkorraren foroa

IRISGARRITASUNA HOBETZEAREN ALDEKO GUZTION KONPROMISOA

- Organo aholku-emailea izateko asmoa duen tresna berri bat abiatu da, martxan jartzeko egungo mugikortasun sistemek eragiten dituzten ondorioen aurrean erantzungo duten egitasmoak.
- Urtarrilean ospatu zen lehenengo bilera baliagarria suertatu zen hainbat gai jorrazteko, esaterako, errepideko arrisgarritasuna edo Alde Zaharreko aparkatze murrizketak.



Egungo mugikortasun sistemek eta eragiten dituzten ondorioek, hala nola, auto pribatuaren gehiegizko erabilera, kutsadura, ezbehar-tasa, hiriko guneen okupazioa e.a., formula berriak aztertzea eskatzen du, arazoari konponbide bat jartzeko zuhurtziaz jokatzeko eta inplikaturiko sektore guztien iritziak aintzat hartuz.

Tokiko Agenda 21en estrategien baitan, mugikortasunak eta irisgarritasunak garrantzia handia dute, hiritarren bizi-kalitatean, alderdi ekonomikoetan eta ingurumenean eragiten dutelako.

Areatzago udalerrriak, iraunkortasunaren aldeko helburuekin bat eginez, mugikortasun eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko konpromisoa hartu du, hiritarrentzat espazioak hobetuz eta zabalduz, eta aldi berean, haur eta helduen segurtasuna bermatuz.

Egitasmo berriak abiatzeko sektore sozioekonomikoen eta hiritar guztien partaidetza

ezinbestekoa denaren printzipioa jarraituz, Areatzako Mugikortasun Iraunkorraren Foroa sortu da.

SOLUZIOBIDERIK ONENAREN BILA

Foroak organo aholku-emailea izan nahi du, ekimen ezberdinak aztertuz eta alor honetan sortzen den arazo bakoitzari ahalik eta konponbiderik onena bilatuz.

Behin Areatzan mugikortasunarekin eta irisgarritasunarekin loturiko gora-beherak aztertutakoan eta ekimen ezberdinak eztabaidatutakoan, Mugikortasun Iraunkorraren Ituna egingo da, eta Areatzako biztanle guztien izango dute aukera onartzeko, errespetatzeko eta sinatzeko.

EMANKORRA LEHENENGO BILERA

Urtarrilaren 17an egin zen lehenengo bilera Foroa eratuz, eta errepideko arrisgarritasuna udalerriko hainbat puntutan, trafikoa arintzeko neurrien betetzea eta Alde Zaha-

rreko aparkatze murrizketak jorraztu ziren, besteak beste.

Halaber, partaideei txosten bana banatu zitzaizkien Areatzako arazoaren inguruan beren hausnarketa egin dezaten, datozen bileretan eztabaidatu ahal izateko. Beste udalerrietan ezarritako ereduak ezagutzeko bisitak egitea ere proposatu zen, beste tokietako esperientziak ikusteko, hiritarrendandik jasotako onarpena, e.a.

Otsailaren 15ean egin zen bigarren bilera. Bertan aztertu ziren eguneratuko dugun 1998an eginiko mugikortasunaren diagnostika, udalerriko aparkalekuen egoera eta alde zaharreko sarren kontrola. Hurrengo bileran partaideen ekarpen zehatzak izatea espero da.

Ekimen mota hauek emaitza positiboak ematea espero da, eta baiagarriak izatea interesa pizten duten beste hainbat gai konpondu eta jorrazteko, bai Areatzan eta bai Arratiako beste udalerrietan ere.

FOROAK EMAN BEHARREKO URRATSAK

- Egoera ezberdinen azterketa.
- Udalerriko arazoei konponbidea emango dieten ekimenen planteamendua eta azterketa.
- Mugikortasun Iraunkorraren Ituna.
- Ituna Areatzako hiritar guztiek sinatu ahal izango dute.

Lehenengo bileran partaideei informazio txosten bat eman zitzaizkien beren ondorioak atera ditzaten hurrengo bileretan eztabaidatu ahal izateko; halaber, beste herri batzuk bisitatzea proposatu zen, beste tokietako eskuhartzeak eta emaitzak ezagutzeko.

Airearen kalitatean trafikoak duen eragina neurtzeko aztertoki mugikorak, Igorren eta Bedian

- Lemoan badago airearen kalitatea kontrolatzeko estazio bat eta kabina mugikorak kokatu dira airearen kontaminatzaile tasak neurtzeko, trafikoaren eragina gogorrago izan daitekeen udalerrietan.

Gure udalerrietako airearen kalitatea kontaminatzaile sorta baten arabera aztertzen da, urriaren 18ko 1073/2002 errege dekretuak arautzen duen legez. Horren arabera, airearen kalitatearen ebaluazioa eta kudeaketa arautzen dira neurtuz sufre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa, partikulak, beruna, bentzenoa eta karbono monoxidoa, eta baita ozonoa ere, abenduaren 26ko 1796/2003 errege dekretuak agindu bezala.

Ezinezkoa da kontaminatzaile guztiak etengabe neurtzea, bakoitzaren muga epe ezberdinei dagokiolarik. EAEko airearen kalitatearen jagoletza eta kontrol sareko kabinek ondorengo kontaminatzaileak neurtzen dituzte etengabe: sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno dioxidoa (NO₂), partikulak (ez guztiak baizik eta PM10 edo arnasgarriak), karbono monoxidoa (CO) eta ozonoa (O₃).

Kontaminatzaile hauek lehen mailakoak izan daitezke, hau da, foku kontaminatzaileetatik sortutako eguratserako isuri zuzenak (SO₂, NO₂, PM10, CO) edota, bigarren mailakoak. Azken hauek lehen mailako kontaminatzaileen aldaketan eta erreakzio kimikoen ondorioz sortzen dira.

Kabinek kontrolatzen dituzte, tokiaren arabera, aipatutako kontaminatzaile batzuk edo denak, bertako iturriak aintzat hartuz, kontaminatzaileak eragin baitituzkete.

Arratiaren kasuan, Lemoan dago kabina bat, Juan de Ajuriagerra kalean (plaza gorrian), hain zuzen.

Airearen kalitatea kontrolatzeko estazio hauek gain, aztertoki mugikorrek neurketak egiten ari dira inpakturik handiena jasaten duten herrietan, Igorren eta Bedia, kasu. Herri hauetan kontaminatzaile garrantzitsuenak neurtu eta aztertu dira,



datu meteorologikoen gain, airearen kalitatean trafikoak duen eragina zehazteko.

ITURRI NATURALAK EDO ANTROPOLOGIKOAK

Iturriak naturalak izan daitezke (trumoiak, sumendiak, basoetako suteak, higadura...) edo antropologikoak (gizakiaren jardunaren ondorio direnak). Antropologikoen barruan, lehen mailakoak diren artean azpimarragarriak dira:

Gizakientzat airea da substantzia garrantzitsuenetako bat, urarekin batera.

Aireko kontaminatzaileak normalki arnas sistemaren eragiten dute lehenengo.

Beren tamainaren arabera sartzen dira partikula kontaminatzaileak. Handienak irentsi edo sudurrean gera daitezke. Txikiak, ordea, biriketaraino sar daitezke.

- Garraioa, NO₂, CO eta PM10 sortuz.
- Konbustioak.
- Industria prozesuetako galerak.
- Errausketa bidezko hondakin solidoen ezabapena.
- Nekazaritzako erreketak.
- Ongarrien erabilera.

NITROGENO DIOXIDOAREN ONDORIOAK

- Denboraren arabera, landareak kaltetzen ditu.
- Pertsonengan sudurreko suminkortasuna, deserosotasuna arnasa hartzean, mina arnasa hartzean, biriketako edema... sor dezake.

PM 10 PARTIKULEN ONDORIOAK

- Landareen fotosintesia eragozten dute.
- Tamainaren arabera, arnas sistemaren sartzen dira.

KARBONO OXIDOEN ONDORIOAK

- Odolak oxigenoa garraiatzeko duen gaitasuna murriztu dezake. Kontzentrazioaren arabera, karbono dioxidoak ikusmena ahul dezake, kontzentrazioa zaildu, zorabioak eragin... Dosi altuetan, hilgarria izan daiteke.

- Berotegi efektu handia sortzen du.

OZONOAREN ONDORIOAK

- Mukosa suminkortasuna, arnas infekzioak edo biriketakoak sor ditzazke.

Agenda 21en ekintza planak aurreikusten dituen eskuhartze nagusiak

- Arratiako udalerriek martxan dituztenez euren Tokiko Agenda 21en Ekintza Planak, lehentasunezko ekintza zerrenda bat osatu da iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko.
- Ekintza hauen helburua bizi-kalitatea eta ingurumena hobetzea da eta batzuei ekin zaie dagoeneko eta beste batzuk epe laburrera edo ertainera gauzatzea espero da. Batzuk, udal gaindiko administrazioen edo erakundearen laguntzak jasotzearen mende daude.
- Hainbat ekintza azpimarra daitezke, ondorengo helburuak dituztenak:



BEROTEGI EFEKTUA DUTEN GASEN ISURKETAK MURRIZTEA:

- Gasoliozko eta ur beroko berokuntza sistema kendu eta horren ordez bideratutako gasa erabiltzen duen beste bat jartzea Udaletxean eta udal igerilekuetan (AREATZAN).
- Udaletxeko berokuntza sistema berritzea: gas naturalaren erabilera gasolioaren ordez (IGORREN).


ENERGIA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA ETA BITARTEKO NATURALAREN ERABILERA ERAGINKORRA SUSTATZEA UDAL ZERBITZU ETA INSTALAZIOETAN:



- Azterketa lan bat egin kontsumoa, ura eta energia aurrezteko neurriak, energia eraginkortasuna eta eraikin eta udal instalazioetan energia berriztagarriak erabiltzeko aukeren inguruan (BEDIAN, DIMAN, ZEANURIN).
- Energia eraginkortasun hobea lortu argiztapen publikoari dagokionez (ARTEA, DIMA).
- Azterketa eta sistema bat ezartzea uraren ihesak antzeman eta kontrolatzeko, gehiegizko kontsumoarekin batera (ARTEA).

MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN SISTEMA IRAUNKORRAGOAK SUSTATZEA:

- Igogailu bat jartzea udal eraikinetan (ARTEA, IGORRE, ZEANURI).
- Aparkaleku gune berrien eraikuntza (AREATZA, DIMA, IGORRE, LEMOA).
- Oinezkoentzat jartzeko gune batzuek zabaltzea eta azpiegiturak egokitzea, argiztapen publikoa hobetuz, hiri-altzariak ezarri e.a. (AREATZA, DIMA).
- Bizikletentzat aparkalekuak (AREATZA, IGORRE).
- Zubia oinezkoentzat eta txirriinduan doazentzat Zubiaren. (LEMOA).



- Hirigunerako sarrerak hobetzea (LEMOA).
- Mugikortasun Iraunkorraren Foroa (AREATZA).
- Piskanaka Alde Zaharra oinezkoentzat jartzeko neurriak. (AREATZA).
- Udal bidegorriaren bigarren zatia egitea hirigunea eta Elexebeiti auzoa lotuz. (ARTEA).
- Hiriguneko trafikoa arintzea eta ibilgailuen abiadura mugatzea (ARTEA, DIMA).
- Mugikortasun Iraunkorraren Udal Planaren garapena (AREATZA, BEDIA).
- Sabino Arana kalearen berrurbanizazioa (IGORRE).

HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEA ETA BIRZIKLATZE TASEN IGOERA:



- Lurpeko edukiontzia jartzea hiri hondakin solidoen hautapen bilketa egiteko (BEDIA, DIMA, ZEANURI).
- Etxeetan konpostgintza esperientzia pilotua (ZEANURI).

INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA HIRITARRAREN PARTAIDETZA SISTEMAK HOBETZEA:

- Informazio panelen instalazioa (AREATZA, BEDIA, LEMOA, IGORRE).
- Mugikortasun Iraunkorraren Foroa (AREATZA).
- Eskolako Agenda 21en garapena (DIMA, IGORRE, ZEANURI).
- Komunikazio, sentsibilizazio eta partaidetza planaren programatzea.



zioa eta garapena: aldizkariak, liburuskak, erakusketak, jardunaldiak, Aste Berdea, Mugikortasun Iraunkorraren Astea, e.a. (ARRATIA).



HIRI INGURUA, GUNE BERDEAK ETA ESPAZIO PUBLIKOAK HOBETZEA:



- Zuhaitzen landaketa eta gune berdeen hobekuntza Olabarrin eta futbol zelaiaren inguruetan (IGORRE).

INGURUMENAREN UDAL KUDEAKETA HOBETZEA:

- Zaratzen inpaktuari buruzko azterketa (AREATZA, BEDIA).
- Airearen kalitatearen neurketak (BEDIA, IGORRE, LEMOA).

